

# ALEGIAKO **ORRIE**



2020KO UZTAILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



**4/5** «EGIN BIZIA  
HERRI BIZIAN»

**2/3**

ITXURA SOILDUA  
ETORKIZUNEAN  
BASOBERRITZEKO

**6**

BERRIZ MARTXAN,  
EGOERA BERRIRA  
EGOKITZEKO  
AHALEGINEAN

**7**

AUZO KONPOSTA  
SENDOTZEKO  
HELBURUA  
MASKARILEN  
ERABILERA  
DERRIGORREZKOA

**8**

EUSKO  
LEGEBILTZARRERAKO  
HAUTESKUNDEEN  
EMAITZAK

# Itxura soildua etork basoberritzeko

Osasuntsu zeuden zuhaitzak kimatu ostean, kaltetutakoak moztu eta bertatik ateratzeko lanak egiten ari dira azken hilabeteetan

**A**LEGIAKO ORRIEren aurreko alean aipatzen zen moduan, Langaurren zuhaitzak botatzeko lanak gauzatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Habitatak Kudeatzeko Zuzendaritza. Ingurune natural horretan mozketa ezberdinak egiteko beharra ondorioztatu zen egindako azterketa lanetan. Lan batzuk orain eta beste batzuk urte gutxiren buruan egitea zen aukera bat baina alde guztiek, egin beharrekoa kolpe batean egitea adostu zuten. Horrela, kostu ekonomikoak murriztea lortuko da eta atsedenlekuan lanean



Hainbat zuhaitzen egoerak sortu zitzakeen arrisku egoerak ekiditea izan da lanak orain egiteko arrazoi nagusietako bat.

diharduen makinariak eragiten dituen ekidin ezineko kalteak ere txikiagoak izango dira. Aldi berean, lanen bi epeen artean erortzen diren zuhaitzak, herriak banaka kudeatu beharko lituzke onura ekonomikorik gabe eta guztietan pisu gehien izan duen faktorea arriskuarena izan da. Herri Onurako Mendien kudeatzailea den Foru Aldundiak baimenduta,

segurtasunaren aldeko apustua eginez, garbiketa sakona egitea adostu zen, balizko arriskuak ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin. Lan horietan ateratzen den egurretik eratorritako dirua Udalak eta Foru Aldundiak kudeatuko dute. Udalari dagokion zatia birlanaketara bideratuko da oso-osorik. Hori nola eta noiz egitearen eta zein zuhaitz motarekin basoberritzearen inguruko erabakia Aldundiaren aholkularitza baliatuz hartuko da. Herri Onurako Mendien kudeaketa Aldundiak gainbegiratzen du eta lantzen ari diren proposamenak 4 edo

5 zuhaitz mota ezberdin landatzea aurreikusten du. Bertakoak izango lirateke zain zabalkunde eta hazte abiadura ezberdinak dituztenak. Horren helburua, bertako naturari dagokion aniztasun aberatsa lortzea da. Alegian ohitura izan den moduan, eskolako haurrek Zuhaitz Egunean zuhaitzak landatzen jarraitzeko espazio ezberdinak egokituko dira. Lanen iraupenari dagokionean gauza gutxi dago Udalaren esku. Zuhaitzak mozteko beharrezkoa den makinariaren lan egutegiak baldintzatu du lan horiek egiteko data. Osasun krisialdiaren eraginez



# izunean

## Beharra zutenen zerbitzura, borondate onenarekin

Itxialdiak iraun zuen bitartean 30 boluntario baino gehiagoz osaturiko talde batek artatu zituen beharrea zeuden herritarren hainbat eskaera



ezarri ziren baldintzek herrian soilik mugitzeko aukera eman zigutenean, Langaurrek estimu handia izan zuen eta halabeharrez lanen hasiera ere data horietan egokitu zen. Egia da egiten ari diren lanak amaitzen direnean Langaurrek soiltze dezentea hartuko duela, jada nabaria den moduan eta inguruan itzala aurkitzea aurreko urteetan baino apur bat garestiagoa izango dela. Dena den, aurtengo udak ezohikotik ere dezente du eta Langaurre bezalako eremu bat baldintza txukunetan herriaren esku izatea ez da gutxi izango.

Bide batez, iragan udan atsedenekuak zuen itxura tristea ahaztu eta herriarentzat berrekuratuko den eremu bat izatea da Udalaren itxaropena. Udalak bere ardurak hartuko ditu baina erabiltzaileei eremua zaintzeko deia egiten zaie eta ingurunearekin errespetuz jokatzeko eskatzen da..



Alarma egoera indarrean jarri zen asteburuan beste hainbat herritan egin zen bezala, Alegian ere beharrea zeuden pertsonen laguntzeko bolondres sare bat antolatu zen Gaztetxearen eta Udalaren elkarlanaren bidez. Bolondres izateko deialdi ireki bat egin zen eta hogeita hamar herritarretik gora izan ziren izena emandakoak. Une oro zerbitzua eskaini ahal izateko beharrezkoak ziren segurtasun eta higiene neurriak hartuta lan egitea izan da lehentasun nagusia, inor arriskuan jarri gabe.

Martxoaren 18tik maiatzaren 4ra bitartean hogei zerbitzutik gora eskaini ziren. Erosketak egin eta etxera eraman, hondakinen kuboak atera... Askotariko lanak egin ziren eta behar ezberdinak zituzten herritarrei laguntza eskaini zitzairen, kutsatzeko arriskua ekidinez.

Alarma egoera amaituta, zerbitzuak deiak jasotzeari utzi zion eta boluntario taldeak bere jarduna etetea erabaki zuen, beharrik ez zegoela ikusita. Dena den, sortu den talde egitura horri eutsi egingo zaio eta etorkizunean antzeko egoeraren bat egokitzen bada, zerbitzua berriz martxan jartzeko prest izango da.


Udaletik eskerrak eman nahi zaizkie boluntario guztiei euren prestutasunagatik eta bereziki gazteen jarduna azpimarratu nahi da, horrelako egoera batean erakutsi duten erantzukizun eta arduragatik. Aldi berean, herritarrei segurtasun eta osasun neurriak mantentzen jarraitzeko eskatu nahi zaie. Batean eta bestean birusaren hainbat agerraldi izan dira azken asteetan maskarilen erabilera eta segurtasuneko distantzia soziala gordetzea bezalako ekintza soilak kutsatzeetatik babesten gaituzte. Arduraz jokatzeko jarraitu behar dugu oraindik ere.





# «Egin bizia herri bizian»

Zerbitzuz ondo hornituta dagoen herri bat izatearen garrantzia bistan geratu da itxialdi garaian zehar; herriko kontsumoa bultzatzeko elkarlan kanpaina bat garatzen ari da Udala azken asteetan



**C**OVID-19aren krisialdiak eragindako itxialdi garaiak modu nabarmenean azaleratu du herrietan zerbitzuak izateak duen garrantzia. Behar genuen guztia herrian bertan erosi beharrean aurkitu gara eta ezinbestekoak diren sektoreetako saltokiek erakutsi duten prestutasunak frogatu du Alegia bizia duen herria dela.

Alarma egoera indarrean jarri zenean bertan hasi ziren merkatariek baldintza berrietara egokitzen. Zerbitzua eskaintzen jarraitzeko aukera izan dutenek segurtasun eta higie neurriak bermatuz lan egiten ikasi behar izan dute, kontsumitzaileek ere arau eta baldintza berrietara egokitu behar izan duten modura.

Ezinbestekotzat jo ez diren sektoreetako jarduerak atek itxita egon behar izan zuten hainbat astez baina berriz ere martxan eta lanerako prest dira. Baina itxita egon diren denbora horretan ez dira geldirik egon. Egoera berriak eskatzen dituen baldintzetara egokitzen aritu dira, berriz ere zerbitzua eskaintzeko modua izan dutenerako guztia prest izateko helburuarekin.

Izan ere, Alegiako merkatariek herria bizirik mantendu dute eta horretan jarraitzen dute ezohiko egoera honetan. Orain herritarroi dagokigu herria bizirik mantendu dutenei bizia ematea. Beharra izan dugunean hori egon dira eta orain eskaini diguten zerbitzu hori eskertzeko aukera dugu.

### **Kontsumoa sustatzeko bonoak**

Ezohiko egoera horrek guztiak eragindako kaltea leuntzeko helburuarekin, Alegiako Udalak eta herriko hainbat saltokik eta negoziok elkarlanean herrian kontsumoa sustatzeko bono sistema bat jarri dute abian. Herritarrek 5 euroko bonoak erosteko aukera dute eta bost euro horiekin, hamar kontsumitu ahal izango dituzte beraiek aukeratzen duten saltoki edo negozioan. Ekimena irailaren 30era bitartean egongo da martxan.

Bonoak erosteko 18 urtetik gora izan beharko dira eta alegiarrek zein kanpokoek erosi ahal izango dituzte. Uztailan eta irailean kultur etxean erosi beharko dira 16:00etatik 20:00etarako ordutegian eta abuztuan udaletxean 10:00etatik 13:00era. Bonoak erosterakoan zein saltokitan erabiltzeko den zehaztu beharko du kontsumitzaileak eta saltoki berean kontsumitzeko bi bono erosi ahal izango dira gehienez. Ekimenarekin bat egin duten saltoki edo negozioek beraien lokalen sarreran bonoak bertan erabili daitezkeela adierazten duen kartel bat dute eta bonoak erosterakoan ere kontsultatu ahal izango da.

Itxialdian zerbitzua eskainiz ahalegin berezia egin duten saltokiei eta egoerak hala behartuta itxita egon behar izan dutenei bultzadatxo bat emateko aukera eskaintzen du bonoen ekimenak. Aldi berean, herrian kontsumitzeak Alegia eta alegia-

rrei onura besterik ez diela ekartzen azpimarratu nahi da. Izan ere, zerbitzuz ondo hornituriko herri batek bertako jendea bertan kontsumitzera bultzatzen du eta horrek herriari bizia ematen dio. Udaletik eskerrak eman nahi zaizkie ekimenarekin bat egin duten merkatariei eta herritarrei bonoak erosteko gonbitea luzatzen zaie.



# Berriz martxan, egoera berrira egokitze ahaleaginean

Osasun krisialdiaren eraginez hainbat astetan itxita egon ostean, instalakuntza publiko ezberdinak zabaltzen ari da Udala beti ere beharrezkoak diren neurri guztiak hartuta

## IREKITA

### **H**aurrentzako udako ekintzarik ez

Alarma egoera indarrean zegoenean, egoeraren azterketa bat egin eta Udalak uztailean haurrentzat antolatzen dituen ekintzak ez egiteko erabakia hartu zuen. Jarduera horiek modu seguruan egin ahal izateko eskatzen ziren baliabiderik ez zegoen eta egoera zein zen ikusita, Udalak argi zeukan osasuna lehenestea zela helburu nagusia eta arduraz jokatu behar zela. Egoera ezegonkorra izan da eta deseskalatze prozesuak izan duen abiadura ikusita, Udalak, ekainean jasotako eskaera bat erantzunez, udako ekintzak egiteko aukera aztertu zuen berriz ere. Bere baliabideak erabiliz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintakoez baliatuz eta

bide pribatutik antolatzeko aukera ere aztertu da baina ekintza horiek antolatzea ez da posible izan.

Erabaki hori hartzea ez da gustuko kontua izan baina denok arduraz jokatzeko ezinbestekoa da.

### **Kultur ekintzak, festak...**

Dakizuen moduan, COVID-19aren krisialdia hasi zenetik kultura ekitaldi publikoak bertan behera geratu dira eta horrekin batera, baita Alegiako jaiak ere. Jende pilaketak ekiditea da kutsatzeak saihesteko modurik eraginkorrenetakoa eta osasun agintarien gomendioak jarraituz, udan ez da gisa horretako ekitaldi edo ekintzarik egingo Alegian. Egoeraren bilakaerak zehaztuko du udazkenetik aurrera zer eta nola egin ahal izango den eta Kultura batzordeak egoera berri horretara egokituz egingo du lan, kultura eskaintzak Alegian bere lekua berrreskuratu dezan, beharrezkoak diren neurri guztiakin.

### **Azpiegiturak martxan**

Deseskalatze fase ezberdinek neurriak leundu ahala, hainbat azpiegitura publikok ateak zabaltzen dituzte. Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxeari dagokionean, liburutegia, gimnasioa eta Elorri pilotalekua erabilgarri daude.

Liburutegia kasuan, bertara deitu edo idatzi behar da liburuak eskatzeko eta arduradunarekin hitzordu bat zehaztu, eskaerak jasotzeko.

Kirol instalazioen inguruan, gimnasioa eta pilotalekua erabiltzeko, aurrez kultur etxera deitu eta ordua hartu behar da. Ordubeteko txandak eskaintzen dira eta gehienez lau pertsona egon daitezke saio bakoitzean. Erabiltzaileen ardura da erabilitako materialak eta gainazalak desinfektatzea saioa amaitu aurretik. Aldagelak eta komunak itxita daude. Elorri futbol zelaiari dagokionean, kasu honetan ere ordua hartu behar da kultur etxera deituta. Ordu eta erdiko saioak eskaintzen dira eta zelai erdia edo osoa erreserbatu daitezke.

Zerbitzu horiek abuztuan etena izango dute oporrenatik. Irailetik aurrera izango duten funtzionamenduaren inguruan, erreserben sistemak indarrean jarraituko du eta datozen asteetan zehaztuko dira ordutegiak eta beste-lakoak. Udalak bere ohiko kanalen bidez emango du informazioa.

Azkenik, udaletxeko herritarren arretarako bulegoak eta gizarte zerbitzuak ere martxan dira. Udaletxera eta gizarte zerbitzuetara deitu eta ordua hartu behar da eta ahal den neurrian, bide telematikoak erabiltzen jarraitzea gomendatzen da.

# Auzo konposta sendotzeko helburua

Udalak erabiltzaile berriak erakarri eta orain artekoak saritu nahi ditu herriko saltokietan kontsumitzeko txartelak emanez


**2**017an eskaini zien Alegiako Udalak herritarrei auzo konposta egiteko aukera. Informazioa banatu eta interesatuei formakuntza eman ostean jarri zen martxan ekimena eta Kalebeheran, Kalegoran eta Larritz auzoan kokaturiko guneetan herritarrek botatzen duten hondakin organikoekin egiten da konposta.

Une honetan 34 familia daude izena emanda auzo konposta egiteko, 100 bizilagun inguru. Udalaren helburua jende gehiago erakartzea da eta egitasmoan parte hartzen dutenak saritzeko asmoz, auzo konposta egitera animatzen direnei zein aurrez izena emanda daudenei Alegiako saltokietan kontsumitzeko 30 euroko erosketa txartel bana emango zaie. Iaz, urrutira joan gabe, egitasmoan parte hartzen duten herritarrei eurek ekoiztako konposta zakukada bana eman zitzairen.

Urtean 15 tona hondakin organiko botatzen dira Alegiako auzo konposta guneetara, gutxigorabehera. Alegian sortzen den hondakin organiko guztiaren %13a auzo konposta bidez tratatzen da. Konposta jaso eta egin beharreko azterketa guztiak egiten zaizkio Salmonella edo *Escherichia Coli* bezalako bakteriarik ez duela ziurtatzeko. Onura ugari dituen praktika bat izaki, Udaletik herritarrak parte hartzera animatu nahi dira eta interesatuek udaletxean ostegunetan egin ditzakete kontsultak ingurumen teknikariarekin.



# 7



## Maskarilen erabilera derrigorrezkoa

Azken asteetan COVID-19arekin kutsatutako pertsonen kopuruak gora egin du eta osasun agintariak hainbat neurri hartu dituzte

**A**larma egoera indarrean sartu zenean eta Covid-19arekin kutsatutakoen kopuruak egunetik egunera etengabe gora egiten zuenean, Gipuzkoan eragin nahikoa txikia izan zuen gaixotasunak, salbuespenak salbuespen. Alarma egoera indargabetu, deseskalatze fase ezberdinak igaro eta normaltasun berria deituriko egoeran sartu garenean ordea, kasu positiboan inguruko datuek okerrera egin dute eta Gipuzkoako hainbat eskualdetan agerraldiak izan ditu birusak.

Horren aurrean, osasun agintariak neurri ezberdinak hartu behar izan dituzte. Horietan nagusia maskarilaren derrigorrezko erabilera da. Ere publiko ireki zein itxi guztietan derrigorrezkoa da maskarila erabiltzea. Kutsatzeak ekiditeko modurik eraginkorrena dela adierazi dute osasun agintariak pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia gordetzearekin batera. Covid-19aren agerraldiak izan diren herrietan neurri horiek besteetan baino zorrotzagoak izan dira. Haur parkeak eta eraikin publikoak itxi, ostalaritzan ordutegi eta edukiera murrizketak...

Alegiako Udalak herritarrei arduraz jokatzeko eskatu nahi die. Datuek erakutsi duten moduan, birusak gure artean jarraitzen du eta neurri gogorragorik hartu beharrik ez izatea espero du. Horretarako, maskarilak derrigorrez erabili behar direla gogorarazten da, ez erabiltzeagatik 100 euroko isuna jaso daitekeela aipatzearekin batera. Pertsonen arteko metro eta erdiko segurtasun distantzia mantentzea ere eskatzen da eta baita jende pilaketak ekiditea ere.

# 8



## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen emaitzak

Uztailaren 12an ospatu ziren hauteskundeetan %56,97ko parte hartzea izan zen Alegian eta EH Bildu izan zen alderdirik bozkatuena 357 botorekin

Uztailaren 12an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren. Hasiera batean apirilaren 5ean ziren egitekoak baina osasun krisialdiaren eraginez atzeratu egin ziren eta duela egun gutxi egin dira. Bizi dugun egoera bereziak baldintzatuta egin diren hauteskunde horiek Eusko Alderdi Jeltzaleak irabazi ditu Gasteizko legebiltzarrean 31 ordezkaririk lortuta. Bigarren indarra EH Bildu izan da 21 eserlekurekin. Gauzak honela, Iñigo Urkulluk jarraituko du Lehendakari karguan.

Alegiari dagokionean, hauteskundeak egiteko baldintzen ezohikotasuna hauteslekuaren kokapenak berak erakutsi zuen. Segurtasun neurri guztiak betetze aldera, udaletxeko sarrerako arkupean jarri ziren herritarrek botoa emateko mahaiak. %56,97ko parte hartzea izan zen eta hauek izan ziren emaitzak.

Alderdia	Alegiako Botoak	Legebiltzarreko eserlekuak
EH Bildu	357	21
EAJ	230	31
PSE-EE	43	10
Elkarrekin Podemos-IU	40	6
PP+Cs	12	6
VOX	4	1
EQUO Berdeak	3	0
ATTKA	2	0
Recortes Cero	2	0
Zuriak	6	
Baliogabeak	2	

Alegiako Udalak ARGIA aldizkariarekin 'Aktualitatearen Gakoak' argitalpenaren publizitatea jartzeko hitzarmena egin zuen. Bada, krisialdi garai honen testuinguruan, ARGIAK publizitate hori dohainik eskaintzeko erabakia hartu du eta Udalak eskerrak eman nahi dizkio erakutsitako gizatasunagatik.

Gizarte zerbitzuetako bulegoak asteazkenetan eta ostegunetan eskainiko du jendaurreko zerbitzua abuztuan. Hitzordua hartu behar da 943 65 47 68 telefonora deituta.

Abuztuan kultur etxea eta bertako instalakuntzak itxita egongo dira oporrenagatik.

Udaletxeko herritarrentzako arreta bulegoek normaltasunez funtzionatuko dute abuztuan. Gogoan izan aurrez hitzordua hartu behar dela 943 65 10 87 telefonora deituta.

ALEGIAKO ORRIEren ale hau modu digitalean eskuratu dezakezu [www.alegia.eus](http://www.alegia.eus) helbidean.